

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

3593

604/2018 EBAZPENA, ekainaren 13koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez iragartzen baita Araba Erakunde Sanitario Integratuko Asistentzia Koordinatzeko zuzendari lanpostua betetzeko deialdi publikoa.

Araba Erakunde Sanitario Integrazio Asistentzialeko zuzendari lanpostua hutsik dagoenez, Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 27. artikuluan eta azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuan ezartzen denaren arabera, lanpostu hori izendapen askez betetzeko deialdi publikoa iragartzea erabaki du Zuzendaritza Nagusiak. Hona hemen

OINARRIAK

Lehenengoa.– Honako hauek eska dezakete Araba Erakunde Sanitario Integratuko Integrazio Asistentzialeko zuzendariaren lanpostua: Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Zerbitzu Sanitarioetako Erakundeei atxikitako langile finkoek (funtzionarioak, estatutarioak nahiz lan-kontratuko langile finkoak), Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko nahiz bere erakunde autonomoetako funtzionarioek eta baldintzak betetzen dituen beste edozeinek. Hona hemen bete beharreko baldintzak:

- 1.– Medikuntza eta Kirurgiako lizentziadunak izan behar dute.
- 2.– Administrazio- eta kudeaketa-lanetan esperientzia izan behar dute.

Bigarrena.– Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Erakunde Zentraleko Giza Baliabideetako Zuzendaritzara igorri beharko dituzte interesdunek eskabideak, 10 egun baliaduneko epean, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera. Halaber, azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan adierazitako leku eta moduetan ere aurkeztu ahal izango dira agiriak (30/1992 Legea, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearena).

Hirugarrena.– Eskabidearekin batera, honako hauek adierazten dituen curriculum vitae aurkeztu beharko dute deialdi honetan parte hartu nahi duten izangaiek:

- Titulu akademikoak.
- Orain arte betetako lanpostuak.
- Lanean eta kudeaketa sanitarioan daukaten eskarmentua.
- Ikasketak, ikastaroak, ponentziak, argitalpenak, hizkuntzak eta egoki iriztitako beste edozein merezimendu.

Eskabidearekin batera, eskatzen diren betekizunen eta aurkeztutako merezimenduen egiaztargiriak ere aurkeztu beharko dituzte. Halaber, argitalpenak, txostenak edota egokitzat jotako beste edozein agiri ere aurkez dezakete.

2018ko uztailaren 11, asteazkena

Laugarrena.– Deialdi hau Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren ebazpen baten bidez ebatziko da. Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

Bosgarrena.– Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko ekainaren 13a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
MARÍA JESÚS GEMMA MÚGICA ANDUAGA.